Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko uztailaren 8a, asteartea — 129 — Martes, a 8 de julio de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## MUTRIKUKO UDALA

### Hirigintza Saila

*Mutrikuko Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala, San Mikolla auzoko «AR-9 Motric» hiri-lurzoruko eremu bati eta SR-1 «San Nikolas-Burumendi» eremuko eremu bati buruzkoa.*

Mutrikuko Udalak, 2025eko ekainaren 26an egindako osoko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

*Lehenengoa:* Mutrikuko Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala formulatzeko espedienteari hasiera ematea. Aldaketa hori San-Mikolla auzoko «AR-9 Motric» hiri-lurzoruari eta SR-1 «San Nikolas-Burumendi» eremuari buruzkoa da.

*Bigarrena:* Erabaki honekin batera doan herritarrek parte hartzeko programa onartzea. Aipatutako programa horren laburpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren egoitza elektronikoan laburbilduta argitaratuko da.

Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, programa horren laburpena argitaratzen da.

Mutriku, 2025eko uztailaren 1a.—Ainhize Azpiazu Azkarraga, alkatea. (4984)

HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA

1. *Plan Orokorraren aldaketaren aurrekariak.*

Mutrikuko Arau Subsidiarioen aldaketa puntual hori Mutrikuko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen egungo zehaztapenak San Mikolla auzoan, aurreko «MetecMotric, S.A.» enpresaren finkan eta instalazioetan, sortutako inguruabar berrietara egokitzeko egin da, eta, horretarako, bi alderdi integratu dira.

Alde batetik, Sanmikollako eremurako (ipar-ekialdea) eta hiri-eremu finkatu baterako indarrean dauden Arau Subsidiarioetan aurreikusitako egiturazko antolamenduaren aldaketa zehatza, eta, bestetik, eremu horren antolamendu xehatua, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. eta 70. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2. *Herritarrek Parte Hartzeko Planaren helburuak.*

Parte-hartzearen beraren inguruko helburu espezifikoak betetzen direla bermatzea.

Herritarrek parte hartzeko programaren helburu nagusia da herritarren esku-hartzearen bitartez hiria ulertzeko eta bizitzeko moduaren aniztasuna jasotzea, eta ikuspegi-aniztasun hori arau subsidiarioen aldaketa puntualaren diseinuan islatzea.

Ildo horretan, herritarrek parte hartzeko programak honako hauek bermatu behar ditu:

a) Parte hartzeko eskubidearen eta eskubide hori baliatzeko moduaren berri ematea.

## AYUNTAMIENTO DE MUTRIKU

### Departamento de Urbanismo

*Modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Mutriku relativa a un ámbito de suelo urbano en el barrio de San Mikolla «AR-9 Motric» y a una zona del SR-1 «San Nikolas-Burumendi».*

El Pleno del Ayuntamiento de Mutriku, en sesión celebrada el día 26 de junio de 2025, adoptó el siguiente acuerdo:

*Primero:* Aprobar el inicio del expediente para la formulación de la modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Mutriku relativa a un ámbito de suelo urbano en el barrio de San Mikolla «AR-9 Motric» y a una zona del SR-1 «San Nikolas-Burumendi».

*Segundo:* Aprobar el programa de participación ciudadana que se adjunta junto al presente acuerdo, publicándose resumidamente el mismo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la sede electrónica del Ayuntamiento.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 3.2 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística, se procede a la publicación de un resumen de dicho programa.

Mutriku, a 1 de julio de 2025.—La alcaldesa, Ainhize Azpiazu Azkarraga. (4984)

PROGRAMA PARTICIPACIÓN CIUDADANA

1. *Antecedentes de la modificación de las Normas Subsidiarias.*

Esta modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Mutriku se elabora con el objeto de adecuar las determinaciones actuales de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Mutriku a las nuevas circunstancias sobrevenidas en el ámbito del barrio de San Mikolla, en la finca e instalaciones de la anterior empresa «MetecMotric, S.A.», integrando para este fin una doble vertiente.

Por una parte, una modificación puntual de la ordenación estructural prevista en las Normas Subsidiarias vigentes para el ámbito de Sanmikolla, en su zona noreste y para un ámbito de la zona urbana consolidada y por otra, la ordenación pormenorizada de dicho ámbito, según lo dispuesto en los artículos 69 y 70 de la Ley 2/2006 de 30 de junio.

2. *Objetivos del Plan de Participación Ciudadana.*

Garantizar el cumplimiento de los objetivos específicos en torno a la propia participación.

El objetivo principal del Programa de Participación Ciudadana es recoger a través de la intervención de la ciudadanía la diversidad de forma de entender y vivir la ciudad y que esta pluralidad de visiones pueda quedar reflejada en el diseño de la Modificación de las NNSS.

En este sentido el Programa de Participación Ciudadana debe garantizar:

a) Que se informe del derecho a participar y de la forma en que puede ejercerse ese derecho.

EK\CV GAO-I-2025-04984

b) Oharrak eta iruzkinak egiteko eskubidea aitortzea parte hartzeko prozedura irekiaren faseetan.

c) Parte-hartzea are fase ireki horiek baino lehen hastea, herritarren esku-hartzea bermatuz aldaketa-espedientea hasten den lehen unetik, hau da, aurrerapena edo hasierako onespena baino lehen.

d) Parte-hartzea ahalbidetzea, informazioa emateko eta proposamenak egiteko kanal eskuragarrien bidez.

e) Prozesu osoan zehar dokumentuaren informazioa ematea.

*3. Herritarren Partaidetzarako Planaren edukia.*

Herritarren Partaidetzarako Plan honek zenbait fase aurreikusten ditu, jarraian zehazten direnak eta udal-teknikariak arduratuko dira horretaz.

1. fasea: Herritarrek parte hartzeko mekanismoak, aldaketa puntualaren hasierako onarpenaren aurrekoak:

* Nahitaez bete beharreko ekintzak:

— Aldaketa puntuala izapidetzeko onartzen duen udal akordioan, Herritarrek Parte Hartzeko Programa hau onartuko da, hura egin, izapidetu eta onartzeko prozesuan jarraitu beharrekoa.

* Ekintza osagarriak:

— Aldaketaren helburuei eta edukiei buruzko informazioa herritarrei ematea, Udalaren web orriaren bidez.

— Informazio publikoa, udalerrian aldizka egiten diren herritarren bilera irekien bidez.

2. fasea: Herritarrek parte hartzeko mekanismoak, aldaketa puntualaren hasierako onarpenaren ondoren.

* Nahitaez bete beharreko ekintzak:

— Aldaketa puntualari hasierako onespena ematea eta jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedapenik handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz, azken argitalpenetik hilabeteko epean, 2/2006 Legearen 90.5 artikuluaren arabera. Halaber, jendaurrean jarriko da udaleko ohiko kanaletan ere.

— Mutrikuko Udalak dagozkion alegazioak jasoko ditu.

— Hasierako onarpenaren ondoren jendaurrean jartzearen ondorioz jasotako alegazioei buruzko txostenak egingo dira. Txosten horiek egiten den dokumentuan sartu beharko dira, behin-behinean onar daitezen.

* Ekintza osagarriak:

— Jendaurreko azalpen-saioa, udal-lokaletan egingo dena, Udalak zehaztutako egun eta orduan. Saio honetan aldaketaren norainokoa eta edukia, dokumentua kontsultatzeko moduak, bilera partikularretarako aurretiko hitzordua eskatzeko aukera, alegazioak egiteko modua, entregatzeko lekuak eta epeak azalduko dira. Saioaren amaieran galdera-sorta ireki bat ezarriko da. Jendaurreko erakustaldia amaitu baino 15 egun natural lehenago gutxienez egingo da bilkura hori.

— Jarraitutako partaidetza-prozesuari buruzko laburpen-txostena, behin-behinean onartzeko aurkezten den agiri bateginean sartu beharrekoa, hala badagokio.

3. eta 4. faseak: herritarrek parte hartzeko mekanismoak, aldaketa puntuala behin-behinean onartu ondoren.

* Nahitaez bete beharreko ekintzak:

— Aldaketa puntualaren behin-behineko onarpena. Ekintza espezifikorik gabe, izapidearen aurrerapena dela eta.

b) Que se reconoce el derecho a formular las observaciones y comentarios en aquellas fases del procedimiento abierto a la participación.

c) Que la participación se anticipe incluso a estas fases abiertas garantizando la intervención ciudadana desde los primeros momentos de iniciación del expediente de Modificación, es decir, de forma previa al Avance o Aprobación inicial.

d) Hacer posible la participación mediante canales accesibles de información y aportación de propuestas.

e) Hacer posible la información durante todo el proceso del documento de las NNSS.

*3. Contenido del Plan de Participación Ciudadana.*

El presente Plan de Participación Ciudadana contempla una serie de fases, las cuales se detallan a continuación y serán atendidas por técnicos municipales.

Fase 1: Mecanismos de participación ciudadana previos a la aprobación inicial de la modificación puntual:

* Acciones de obligado cumplimiento:

— En el acuerdo municipal de admisión a trámite de la Modificación Puntual se aprobará el presente Programa de Participación Ciudadana a seguir en el proceso de su elaboración, tramitación y aprobación.

* Acciones complementarias:

— Información de los objetivos y contenidos de la modificación a la ciudadanía a través de la página Web del Ayuntamiento.

— Información pública a través de las reuniones ciudadanas abiertas que tienen lugar regularmente en el municipio.

Fase 2: Mecanismos de participación ciudadana posteriores a la aprobación inicial de la modificación puntual.

* Acciones de obligado cumplimiento:

— Aprobación inicial de la Modificación Puntual y sometimiento a información pública por medio de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el diario o diarios de mayor difusión, o de mayor circulación del territorio, por el plazo de un mes a partir de la última publicación, conforme al artículo 90.5 de la Ley 2/2006. También se dará publicidad de la exposición por los canales habituales municipales.

— El Ayuntamiento de Mutriku recibirá las alegaciones que correspondan.

— Se emitirán los informes pertinentes sobre las alegaciones recibidas como consecuencia de la exposición pública tras la aprobación inicial. Estos Informes se deberán integrar en el documento que se elabore para su aprobación provisional.

* Acciones complementarias:

— Sesión explicativa abierta al público, que se realizará en locales municipales, en el día y hora que determine el Ayuntamiento. En esta sesión se explicará el alcance y contenido de la modificación, las formas de consultar el documento, la posibilidad de solicitar cita previa para reuniones particulares, la forma de realizar las alegaciones, así como los lugares de entrega y sus plazos. Al final de la sesión se establecerá una ronda abierta de preguntas. Esta sesión se realizará como mínimo 15 días naturales antes del final del periodo de información pública.

— Informe de síntesis sobre el proceso de participación seguido, a integrar en el documento refundido que, en su caso, se presente para su aprobación provisional.

Fases 3 y 4: Mecanismos de participación ciudadana posteriores a la aprobación provisional de la modificación puntual.

* Acciones de obligado cumplimiento:

— Aprobación provisional de la Modificación Puntual. Sin acciones específicas dada lo avanzado del trámite.

EK\CV GAO-I-2025-04984

— Aldaketa puntuala behin betiko onartzea eta erabakia eta hirigintzako arauak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5 artikulua zein Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikuluarekin bat etorriz.

— Erakusketaren publizitatea ere egingo da, udalaren ohiko kanalen bidez.

— Aprobación definitiva de la Modificación Puntual y publicación del acuerdo y de las normas urbanísticas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, tal y como dispone el art. 89.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco y art. 70 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

— También se dará publicidad de la exposición por los canales habituales municipales.

EK\CV GAO-I-2025-04984